

# **MIKEL ARRUTZA (1890-1966),**

## **BIZKAIKO ALDUNDIKO EUSKARAZKO ITZULTZAILE**

### **1. SARRERA**

Dagoeneko Zuzenbidearen Euskal Akademiaren Aldizkarian hainbat artikulua interesgarri agertu dira zuzenbidearen eta euskararen arteko harremanei buruz, bai euskaraz, bai erdaraz. Horrela, Andres Urutiak aldizkariaren bigarren zenbakian Nazario de Oleagari buruzko artikulua bat argitaratu zuen (*Nazario de Oleaga. 1884-1961. Bilboko Gotzaitegiaren itzultzaile juridikoa*) eta laugarren zenbakian beste bat, Jean Etcheverry-Aintchart baigorriarraren gainean (*Jean Etcheverry-Aintchart, 1914-2003, notario euskalduna*); bosgarrenean, berriz, Sabino Aranaren lana foru zuzenbide zibilaren inguruan Bizkaiko Diputazioan izan zuen hizpide (*Bizkaiko foru-zuzenbide zibila eta Sabino Arana ahaliduna*); nik neuk ere, hirugarren zenbakirako Bizkaiko Batzar Nagusietako historian euskarak izan duen lekuaz artikulua bat aurkeztu nuen, erdaraz, ikerketa-liburu baten argitalpenaren kariaz (artikuluaren izenburua: *Presencia histórica del euskera en las Juntas Generales de Bizkaia*; liburuaren datuak: *Bizkaiko Batzar Nagusiak eta euskera: 1833-1877. Euskarazko testuen bilduma eta azterketa*. Bizkaiko Batzar Nagusiak, Bilbo, 2003, 383 orrialde).

Akademiaren Aldizkari honen euskarazko ale baten esperoan, oraingoan ere euskarak eta zuzenbideak sortutako



Argazkian, Mikel Arrutza (eskuinean) eta Nazario Oleaga euskaltzaina; biak gerra aurreko eta osteko euskalgintzan sendo aritu ziren.

bikoteari buruz arituko gara. Aipatutako bi osagai horien batasuna, topikoak dioenez, ez da batere emankorra izan. Hala ere, oraindik ere kontu asko eta asko ikertu gabe daudelakoan gaude eta horren adibide garbia da esku artean darabilgun gai ezezaguna: hogeigarren mende hasieran, hain zuzen, hogeiko hamarkadaren inguruan, Bizkaiko eta Gipuzkoako Aldundiek euskarazko testugintza administratiboa bultzatu zuten, eta lan horren protagonista bat Mikel Arrutza bilbotarra izan zen.

## **2. ARRUTZARI BURUZKO ZERTZELADAK**

Mikel Arrutza (Emeterio Miguel de Arruza y Eguía), *Arrugain* ezizenez ere ezagutua (erabilitako beste goitizen batzuk: *Urratza*, *Garbi Zale Zarra...*), Bilbon jaio zen, 1890eko martxoaren 3an. Hil, berriz, Iruñean hil zen, 1966ko urriaren 19an.

Gazte-gaztetatik hasi zen aldizkari eta egunkari askotan idazten, besteak beste, hurrengoetan: *Aberri*, *Euzkadi*, *Euzko Deya*, *Eguna*, *Zeruko Argia*, *La Gaceta del Norte*, *Karmel*, *El Bidasoa*, *Jesusen Biotzaren Deia*, *Olerti*, *Euzko Gogoa*, *Egan...* Olerki lanen berri

zehatza Julen Urkizaren *Euskal bertso eta olerkien bibliografia* liburu mardulean aurkituko du irakurleak; bertan, 48 olerki zerrendatzen dira. Hiltzean, olerki batzuk argitaratu gabe ere utzi zituen.

Argitaratutako liburuei dagokienez, hasteko, literatur itzulpen bat aipatu behar dugu, Truebaren *El Judas de la Casa* izeneko ipuinaren itzulpena, hain zuzen:

- Trueba, Antonio de: *Etxe-kalte*. Verdes-Atxirika'ren Irargua, Bilbo, 1934 (bestelako datuak, azalean: *marrazki-egilea Beaskoetxea'tar Arseni*; *euskaratzeilea Arrutza'tar Mikel, Arrugain*; liburuak 89 orrialde ditu).

Idazteaz gain, Arrutzak euskara irakatsi zuen. Izan ere, Arrutzak euskarazko eskolak eman zituen Bilbon eta, horrez gain, zenbait liburu asmatu zituen gure hizkuntzaren irakaspena zabaldu eta errazteko. Hona hemen helburu horrekin kaleratu zituen argitalpenak:

- *Método Massé-Dixón. Traducido y adaptado al euskera por Arrugain. Lenengo idaztia. Libro primero*. Bilbao, 1923.

- *Método práctico para aprender vascuence. Primer libro. Primera edición*. Gaubeka, Bermeo, 1925. Kanpoko azalean esaten da: *Por Miguel de Arruza. Profesor de las escuelas municipales de Bilbao*. Eta barrukoan: *Traducido de otros idiomas y adaptado al nuestro*.

- *Euskeraz ikasteko bide erraza. 2. agerraldia*. Verdes-Atxirika'ren Irargua, Bilbo, 1934.

Gerra ostean ere, euskarazko irakaskuntzari loturik jarraitu zuen, eta beste egile batzuekin batera (Lino Akesolo eta Antonio Arranbide), beste lan hau atera zuen:

- *Jo! Euskaraz nola ikasi. Cómo aprender vascuence*. Bruño Idaztiak, Bilbo.

Azkenik, Arrutzak euskararen aldeko ekimenetan parte

hartu zuen, modu nabarmenean, Francoren garaiko sasoi ilunetan. Horri buruzko informazioa Satrustegiren *Euskaltzaindiaren Laguntzaileak (1959-1963)* izeneko artikuluan aurki daiteke (*Euskera*, I, 1992, 557-571. or.). Lan



Irudian, Mikel Arrutzak euskaraz ikasteko argitaratu zituen eskuliburuetako baten azala, 1934. urtekoa.

horien adibide bat aipatzearen, Arrutzaren *Bilboko euskaltzaleen agurra* testua kontsulta daiteke (*Euskera*, V, 1960, 171-177 or.); bertan, hiru proposamen luzatzen ditu euskarak aurrera egin dezan: eskoletan euskarari sarbidea ematea, egunkarietan euskarazko testuak sartzea, eta irratietan ere euskarari tartetxo bat ematea. Euskarazko eskolak ematen ere jarraitu zuen.

Beraz, Arrutzak lan asko eta asko egin zuen euskararen inguruan. Lan horietako batzuk aski ezagunak edo, behintzat, agerikoak. Artikulu honetan, berriz, Bizkaiko Aldundiko itzultzaile modura izan zuen ibilbide malkartsua aipatuko dugu.

### **3. EUSKARAREN ALDEKO NEURRIAK BIZKAIKO ALDUNDIAN (1917-1919)**

Aurretik jeltzaleek Bizkaiko erakunde nagusian ordezkaririk lortu bazituzten ere, 1917. urtean erabateko nagusitasuna eskuratu zuten Bizkaiko Aldundian. Horren ondorioz, 1917an Ramon de la Sota Aldundiko lehendakari hautatu zuten.


Bizkaiko Aldundiaren buruzagitza eskuratzean, Ramon de la Sotak agintari abertzaleen norabideak zerrendatu zituen: “Dividiremos por eso nuestra actuación futura en tres grandes grupos: obras puramente educativas; obras que tienden al acrecentamiento de la riqueza, y obras económicas. Entre las primeras, las educativas, hay ancho campo para nuestras iniciativas. Hay en el País vasco un movimiento que cuenta con las simpatías de todos los vascos. Me refiero a la labor que ciertos eruditos realizan para conservar y propagar el euskera. Nosotros, desde esta Corporación, debemos ayudar y ayudaremos dicho movimiento con todos los medios morales y materiales que estén a nuestro alcance.”

Orduko, bazen zabaldua eta hasia euskal gizartean giro euskaltzale oparoa. Horren ildotik, aipagarri dira Eusko Ikaskuntzaren Lehen Kongresua (Oñati, 1918) edota Euskaltzaindiaren sorrera (1919).

Bizkaiko Aldundiaren lanari dagokionez, euskararen aldeko neurri ugari eman ziren:

- irakaskuntzan, auzo eskolak eta euskarazko erabilera bultzatu ziren
- langileen alorrean, euskaraz jakitea eskatu zen lanpostu askotan

- administrazio barruan euskararen erabilera bultzatu zen, eta hori dela-eta, testuen bertsio elebidunak prestatzen hasi ziren (ikus, argibide gehiago izateko, artikulua hau: Cesar Gallastegi, Gotzon Lobera eta Andres Urrutia: "Euskarazko testugintza juridiko-administratiborako osagaiak: Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundien zirkularrak", in *Karmel*, 228. zk., 199, 3-19 or.). Zeregin horietarako euskarazko itzultzaileak beharrezkoak omen, eta euskarazko itzultzaileen lehen izendapenak etorri ziren: lehenengoa, Luis Biziola, bigarrena, Mikel Arrutzarena.



Eusko Ikaskuntzaren lehen kongresuko argazkia (Oñati, 1918); irudian Espainiako Erregea, Alfontso XIII.a, agertzen da, eta, atzerago, Ramon de la Sota, Bizkaiko Aldundiko lehen-dakari euskaltzalea.


#### **4. ARRUTZA, ALDUNDIKO ITZULTZAILE**

Hurrengo lerroetan, Arrutzaren gorabeherak aipatuko ditugu, itzultzaile lanpostuari dagokionez. Artikulu honen hasieran

aurreratu dugunez, Arrutzak ibilbide malkartsua izan zuen Aldundian; izan ere, itzultzaile kargua desagertu egin zen eta gure protagonistak administrazioarekin borrokatu behar izan zuen bere eskubideak babesteko.

### **a) 1919: itzultzaile izendapena**

Aurretik aipatu dugun giro euskaltzalearen barruan egin zen itzultzaile berriaren izendapena. Horrela, Arrutza 1919ko uztailaren 29an Bizkaiko Aldundiko itzultzaile izendatu zuten (aurretik Probintzia Batzordeak hartuta zuen erabakia berretsiz). Soldata 3.000 pezetakoa izan zen. Urte bereko abuztuaren 21ean karguaz jabetu zen.



Sin discusión fueron también aprobados los siguientes acuerdos de la Comisión Provincial: 1.º, sobre transferencia de crédito para pago de las obras de reforma del garage del Cuartel de Misiones de Bilbao; 2.º, aprobar las actas de subasta de la rectificación de asfaltado y reparación de la travesía de Munguía y de reparación de aceras de la travesía de Larrabezúa; 3.º, nombrando traductor de euzkera de las Oficinas de la Diputación a D. Miguel Arrutza; 4.º, fijar en *dos mil quinientas pesetas* anual el sueldo del Administrador de la Granja de Abadiano.

Bizkaiko Aldundiaren osoko bilkuraren akta; bilkura 1919ko uztailaren 29koa da: Probintzia Batzordearen erabakia berresten dute (Bizkaiko Probintziaren Aldizkari Ofiziala, 1921ko ekainaren 16koa)

### **b) 1923: lanpostua desagertu**

Bizkaiko Aldundiak 1923ko abuztuaren 29an lanpostua desagerrarazi zuen, hau da, euskarazko itzultzaile lanpostua kentzeko erabakia hartu zuen. Ezabaketaren aldeko botoak: Villafranco del Castillo markesa, Hurtado de Saracho, Carranza, Astigarraga, Basterra, Alzaga, Larrea (Alejandro), Hormaza, Marco Gardoqui, Zubiria eta Urien (Diputazioko lehendakaria); itzultzailea mantentzearen aldekoak: Sota, Urrutia, Larrea (Luis Maria) eta Orbe. Kontuan izan behar da 1919an jeltzaleek nagusitasuna galdu zutela Bizkaiko Aldundian. Gainera, Primo de Riveraren diktadura gainean zegoen (irailean hasi zen).

Luis María y Orbe.  
 Igualmente se suprime la consignación del traductor de euzkera por *once* votos de los Sres. Marqués de Villafranca del Castillo, Hurtado de Saracho, Carranza, Astigárraga, Basterra, Alzaga, Larrea (D. Alejandro), Hormaza, Marco Gardoqui, Zubiría y el Presidente Sr. Urien, contra *cuatro* de los Sres. Sota, Urrutia, Larrea (D. Luis María) y Orbe. Se acordó tenerle en cuenta para colocarle como temporero durante un plazo prudencial hasta que pueda proporcionarse un medio de vida. Se aprueban las restantes partidas.

Bizkaiko Aldundiaren osoko bilkuraren akta; bilkura 1923ko abenduaren 28koa da; euskarazko itzultzailearen lanpostua kentzen dute (Bizkaiko Probintziaren Aldizkari Ofiziala, 1921ko ekainaren 16koa)

### c) 1924: Arrutzaren errekurtsioak

Arrutzak 1924. urtearen hasieran idazki bi bidali zizkion Aldundiari, bata urtarrilean, bestea martxoan, bere lan eskubideak babesteko.

Hain zuzen ere, Diputazioaren 1921eko martxoaren 2ko erabakiaren arabera, langileak ezin ziren lanpostutik kendu baldintza batzuk bete gabe, eta kanpoan gelditzen zirenek, batetik, ordu arteko soldata jasotzen jarraitzeko eta, bestetik, beste lanpostu bat eskuratzeko eskubidea zuten. Itzultzaile arduratik kendu eta gero, Arrutzak aldi baterako behargin modura lan egin zuen Diputazioarentzat eta soldata baxuagoa jaso zuen. Diputazioak bi idazkiei ez zien erantzunik eman, eta Arrutzak justizia administrazioa jo zuen urte horretan bertan.

### d) 1924-1926: Justizia Administrazioaren epaiak

Esan bezala, Arrutzak epaitegietara jo zuen hurrengo eskatzeko: Aldundiaren erabakia (1923ko abenduaren 29koa) bertan behera uzteko edo, gutxienez, orduko soldata jasotzeko (aldi baterako langile moduan Diputazioak gutxiago ordaintzen zion). Lehenengo epaia 1923ko urrian heldu zen eta Arrutzaren kontra izan zen, auzitegiaren eskumen-gabezia oinarri hartuta.



Arrutzak Madrilen epai horren kontrako apelazio errekurtsua jarri zuen, eta 1926ko urtarrilaren 20an aldeko epaia lortu zuen; arazoa probintzia mailako auzitegiak bigarrenaz epaitu zuen (1926ko martxoaren 16an) eta aldeko erabakia eman: 1923ko ebazpena bertan behera geratu zen eta eskatutako guztia aitortu zitzaion.

Hala ere, fiskalak epaia errekurritu zuen eta arazoa berriro ere Madrilerara igaro zen.

#### **d) 1927: Auzitegi Gorenaren azken epaia**

Esan bezala, probintzia mailako auzitegiak emandako epaiaren kontra apelazio errekurtsua jarri zuen fiskalak. Helegitearen ondorioz, auzia Madrilgo Auzitegi Gorenaren eskuetan geratu zen. Auzitegi Gorenak, hain zuzen, Administrazioarekiko Auzietarako Salak 1927ko apirilaren 22an epaia eman zuen, fiskalaren errekurtsuaren ondorioz.

Epaitzan esaten denez: “Fallamos que debemos confirmar y confirmamos la referida sentencia apelada, que el Tribunal provincial de Vizcaya dictó en 16 de Marzo de 1926, con la aclaración de que el derecho que se reconoce al interesado es el de excedencia, y a ocupar, cuando vaquen, cargos iguales o análogos, al que desempeñaba; y devuélvanse las actuaciones y expediente gubernativo, con el oportuno despacho a dicho Tribunal, para su ejecución y cumplimiento.”

Beraz, fiskalak ez zuen lortu Arrutzaren egoera gaizkitzea eta beste lanpostu bat eskuratzeko eskubidea aitortu zitzaion bilbotarrari. Hori dela eta, 1928. urtean, Ebaristo Bustintza *Kirikiñok* erretiroa hartu zuenean, euskarazko katedraren lanpostua lortzen saiatu zen Arrutza. Ondoren, Aldundiak ordezko irakasle izendatu zuen urte horretan bertan, eta zergintza horretan aritu zen hurrengo urteetan. Azkenik, gerra bukatu eta gero, 1937. urtean, Diputazioak arrazoi politikoengatik kargua utzarazi zion.

Nº 1690

## Tribunal Supremo

Sala de lo Contencioso - Administrativo

### Sentencia

Nº 289

Señores:

Don Carlos Jordano	Presidente	En la Villa y Corte de Madrid a veintidós de Abril de mil novecientos veintisiete,
„ Antonio María de Mena		
„ José Martínez Marín		
„ Manuel Fernández Solís		
„ Leopoldo López Infantes		


en el pleito que ante Nos pende, en grado de apelación, entre Don Inácherio Miguel de Arce y Agüía, como apelado, que no se ha personado ante esta Sala, y la Administración general del Estado, apelante, y en su nombre el Fiscal, sobre confirmación o revocación de la sentencia dic-

Argazkian, Auzitegi Gorenak 1927ko apirilaren 22an emandako epaiaren azala.

#### 4. POST DATA: AUTONOMIA ESTATUTUAREN EGITASMOAREN ITZULPENA (1932)

Lehen esan dugun moduan, abertzaleak 1919an Aldunditik bota ondoren, euskararen erabilpena eremu juridikoan baztertuta geratu zen. Hala ere, II. Errepublikarekin, berriz ere, euskara garatzeko aukera berriak sortu ziren.

Bizkaiko Aldundia kudeatzen zuen erakundeak, *Comisión Gestora* delakoak, 1932ko apirilaren 8an, estatutuaren egitasmoaren testua euskaratzea erabaki zuen. Lan horren ardura Arrutzari eman zioten. Urte horretan bertan hurrengo hau argitaratu zen *Proyecto de estatuto del País Vasco-Navarro: aprobado por las comisiones gestoras de las Diputaciones de Alava, Guipúzcoa, Navarra y Vizcaya / Araba, Gipuzkoa, Nafarroa eta Bizkai'ko Aldundien bein-beiñeko ordezkariak ontzat arturiko Euskalerrarentzako sortaru-asmoa*, Bizkaiko Aldundiaren irarkolan.



Irudian, Bizkaiko Aldundiaren Batzorde Kudeatzaileak Arrutzari emandako enkargua (Bizkaiko Foru Agiritegia: Regimen Económico-Administrativo, Estatuto Vasco, J-2.481).

Laburbilduz, artikulu honen bidez, Mikel Arrutza idazle eta euskaltzalearen alde ezezagun bat argitu nahi izan dugu. Gainera, euskararen eta herri erakundeen arteko historiarako datu berriak eskaini ditugu.

***Cesar Gallastegi***